



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ulertzeko gauza denak uler beza”

2023ko uztailaren 16a  
Urteko 15. igandea (A)

### Mateo 13, 1-23.

Egun batez, Jesus etxetik atera eta aintziraertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, txalupa batera igo eta eseri egin zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen.

Eta luze hitz egin zien parabola bidez. Honela mintzatu zitzaion:

“Atera zen behin ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bidebazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten.

Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian, eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar. Ulertzeko gauza denak uler beza”.

Egun batez, Jesus etxetik atera eta aintziraertzean eseri zen.  
Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, txalupa batera igo eta eseri egin zen.

## BELARRIAK BAI, BAINA ENTZUN EZ

*José Antonio Pagola*

Jesusen parabolak beti gertatu izan dira liluragarri haren ikasleentzat. Ebanjelioek berrogei inguru gorde dituzte. Segur aski, Jesusek gehiena errepikatu zituenak dira, edo ikasleen bihotzean eta oroimenean sakonenik ezarri zirenak. Baina, nola irakurri parabola horiek? Nola atzeman horien mezua?

Mateok, lehenik eta behin, gogoratzen digu, ezen parabolak munduan Jesusek «erein» dituela. Jendeari bere mezua ematera «irten zen Jesus bere etxetik», eta haren lehen parabola honela hasten da hain juxtu: «Irten zen ereilea ereitera». Jesus da ereilea. Haren parabolak deiak dira: bizia hark bizi eta hartzen zuen bezala bizi eta hartzeko deiak. Jesusekin sintonizatzen ez badugu, nekez ulertuko ditugu haren parabolak.

«Erreinuko hitza» erein du Jesusek. Hala dio Mateok. Parabola bakoitza gonbita da: mundu zahar, azal hutseko eta gizatasun gutxikotik «herri berri» batera, bizi-bizira, Jainkoak beren seme-alabentzat gogoko duen batera igarotzeko gonbita. «Jainkoaren erreinua» deitzen zion Jesusek herri horri. Mundua gizatarragoa egiten Jesusi jarraitzen ez badiogu, nolatan uler genitzake haren parabolak?

«Bihotzean» ereiten du Jesusek bere mezua, hau da, pertsonaren barnean. Hor gauzatzen da benetako bihotz-berritzea. Ez da aski parabolak predikatzea. Elizaren, hau da, kristauen bihotza Jesusi irekitzen ez bazaio, ez dugu sekula haren indar eraldatzailea atzemango.

Jesusek ez du inor bereizten. Hau da gertatzen: haren «ikasle» izan eta haren urratsei jarraitzen dietenei Jainkoak «Erreinuko sekretuak ezagutarazten» dizkie. Eta gainerakoei ez. Parabolak ulertzeko giltza dute ikasleek; gero eta sakonkiago ezagutuko dute Jainkoaren egitasmoa. Baina urrats hori egiten ez dutenek, aukera hori egiten ez dutenek ezin ulertu dute haren mezua, entzuten duten apurra ere galdu egiten dute.

Hau izan daiteke gure arazoa: «bihotza sorgoturik» bizi nahi izatea. Saihestu ezineko hau gertatzen da orduan. Belarriak izan, bai, baina inolako mezurik entzun ez. «Begiak» izan, bai, baina Jesus ikusi ez. Gure bihotzak ez du ezer ulertzen. Nola ereiten da ebanjelioa gure kristau-elkartetan? Nola esnatzen dugu geure artean Ereilea onartzeko gogoa?